




Berrigara



MARGA

San Pedro 20. Bergara.
943 76 05 37.
Iturriotz 12. Arrasate.
943 71 17 40.

Ezkontzak
~
Jaunartzeak
~
Ekitaldi
bereziak
~
Estilodun
eguneroko
arropa
ere badago





Aurrekontu abertzale eta aurrerakoak?

Mikel Elkoroberezibar

Aspaldiko partez udaleko pleno aretora joan nintzen, pasa den astean onartu baitzituzten aurtengo udal aurrekontuak, eta azkenengo urteetan gertatu den bezala, pleno 'espeziala' izan genuen. Izan ere, EAJ eta EAK, PSE-rekin akordioa lortuta zeukaten aurrekontuak onartzeko. Halere plenoa hasi aurretik PSEko zinegotzi bakarrak EAJ eta EAKo ordezkariak jakinarazi zien udal aurrekontuak ez zituela onartuko, Udaltzari emango zizkieten 2,5 milioiak aurrekontuetatik ez bazituzten kentzen. Noski, EAJ eta EAK daramaten politika abertzale eta Euskal Herriaren autodeterminazioaren aldekoari jarraituz, beno, hori esaten dute sinatutako Eusko Jaurlaritzarako gobernu akordioan behintzat, ezezko borobila emango ziotela pentsatu nuen PSEko buruzagiek inposatutako baldintzari. Baina, hasieran esan dudan moduan, Bergarako EAJ eta EAKo zinegotziak oso trebeak dira pleno 'espezialak' prestatzen, eta minutu batzuetako atsedenen ondoren, Victoriano Gallastegik EAJ eta EAren politika abertzale eta autodeterminatzaileari tinko jarraituz, Euskal Herrian dagoen instituzio nazional bakarrari, Bergara moduko herri abertzale baten dirua eta la-

guntza ukatu zion, PSEren aginduei men eginez. Alkatearen esplikazioak behintzat entzun ahal izan genituen, gustatu ala ez aurpegia eman zuen, baina EAKo bi zinegotzien ahotik hitzik ere ez genuen entzun gaiari buruz. Horrek ere berdin jarraitzen duela ikusi ahal izan nuen.

Aurrekontuak onartu dituzte, eta agian milurteko berria hasi denez, Bergaran behar beharrezkoak ditugun azpiegiturak hasiko dira egiten. Zeren oraindik ez dut ulertzen inguruko herrietan nola dituzten kultura etxe berriak, antzoki berriak, kiroldegi berriak, eta Bergaran azkenengo hamar urteetan zer egin da kirol eta kultura mailako azpiegiturei dagokienez?

«Azkenengo urteetan gertatu den bezala pleno 'espeziala' izan genuen. Izan ere EAJ eta EAK, PSE-rekin akordioa lortuta baitzeukaten aurrekontuak onartzeko»

Kultura Etxeak ez du bere funtzioa betetzen jendez gainezka baitago, igerilekuak dauden moduan daude, baldintza egokietan antzerkirik ikusi nahi badugu botatzear dagoen zinemara joan behar dugu, pilotalekuan ere profesionalen pilota partidu gero eta gutxiago daude, gazteen toki faltaren arazoa ez dago konpondurik.

Gainera, arazo horiei buruz telebista piztu eta zerbait jakin nahi badugu, ezin izango dugu berririk ikusi, EAJ eta EAK, bailara mailan euskaraz igortzen den GoiTB telebistarentzat dirulaguntzarik ez dutelako eman. Agian Bergarako berriak euskaraz eta telebistaz ikusi nahi baldin baditugu, igerilekuekin gertatzen den bezala, Arrasatera joan beharko dugu, eta horrela jarraitzen badugu antzerkia ikustera Oñatiko Santa Ana Antzokira joango gara, eta Unibertsitate mailako ikasketak egitera Eskoriatzara, Arrasatera edo Oñatira. Hori bai, Bergaran hartu ezingo dugun abiadura handiko tren eta urrea baino garestiagoa den autopistak 'liposukzio' garestia egin die gure herriko hainbat parajeri. Eta Madril aldean agintzen duen bibotedunak esaten duen moduan «Bergara ondo doa».<

barruan



Ivan Forero

'Nunca más' proiektuko kidea

«Kolonbiako 46.000 hilketen memoria berreskuratutako nahi dugu proiektuarekin»

6.



Bittor Bernardo

Irala bideo-klubekoa

«Ez nuke inola be lanez aldatuko; izugarri gustatzen jat nere lana»

15.



Aritz Bikuña

Dordoka taldekoa

«Boccian eta slalomean Espainiako txapelketarako sailkatu nahi nuke»

17.

AGENDA ETA ZERBITZUAK

hi, gazte!



BEKAK

Turismoa. Eusko Jaurlaritzak. Turismo alorrean, unibertsitate-ikerketak sustatzeko hiru beka. Epea: ekainak 29.
Unibertsitatea. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. 2001/2002 ikasturtean ikasketak lehen aldiz hasten dituzten ikasleendako. Epea: martxoak 30.

JARDUERAK

Udalekuak 2001. Gipuzkoako Foru Aldundia. 7-13 urte bitartekoendako. Zazpi edo hamalau eguneko txandak (elebidunak eta euskaraz), kirol ekintzak eta ingeles ikastaroa. Izena ematea: Gazte Informazio Gunea (Bergarako kultura etxea) edo <http://gipuzkoa.net/oporraldi>. Epea: martxoaren 23tik apirilaren 2ra.
Sinposioa. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Deustuko Unibertsitatea. "Gabriel Celayaren heriotzaren X. urteurrena". 20 orduko sinposioa, apirilaren 4tik 6a arte.

IKASTAROKAK

Bide prestakuntza. Eusko Jaurlaritzak. OHO, B gidabaimena, baldintza psikofisikoa. Bide prestakuntzarako irakasle izateko gaitasun-ziurtagiria lortzeko ikastaroa. Epea: martxoak 26.
Gasteiz. Basabe Animation. Marrakzi bizidunen ikastaroa Gasteizen. Joaten diren guztiekin lan-poltsa sortuko da. Epea: martxoak 26.

SARIAK

Literatura. Eusko Jaurlaritzak. Gazteen artean euskara sustatzeko 2001eko Urruzun literatura lehiaketa. Epea: martxoak 30.

LAN ESKAINTZAK

Bost administrari laguntzaile. Astigarragako Udala. Eskola-graduatu edo balioidea. Epea: martxoak 2.
Bi administrari. Zumarragako Udala. Batxilergoa, LH-II edo balioidea. Hizkuntza eskakizuna: 3. Administrazio lanpostu bat herritarrendako arreta-bulegoan, eta beste bat hirigintza arloan. Epea: martxoak 30.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunea.


INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefonoa: 943 77 91 57. E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net. Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00. Larunbata: 09:30-13:30.

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunea igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketan eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



Berdoztu

Erdi mozkortu.

– Atzo
azkenerako
bastante
berdoztuta
akabau giñuan.

hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Martxoak 15, eguena	21 °C	5 °C	- 1/m ²
Martxoak 16, egubakoitza	20 °C	8 °C	3,7 1/m ²
Martxoak 17, zapatua	16 °C	3 °C	- 1/m ²
Martxoak 18, domeka	17 °C	8 °C	- 1/m ²
Martxoak 19, astelehena	18 °C	4 °C	0,6 1/m ²
Martxoak 20, martitzena	20 °C	14 °C	0,4 1/m ²
Martxoak 21, eguaztena	21 °C	17 °C	- 1/m ²

mezak

Santa Marina
Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.
San Pedro
Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.
Osintxu
Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.
Elosu
Domekak: 10:00.
Ubera
Domekak: 10:30.
San Juan
Domekak: 11:00.
Basalgo
Domekak: 13:00.
San Prudentzio
Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina
Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.
San Pedro
Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Sorraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUAKITZA 23:
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
ZAPATUA 24:
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
DOMEKA 25:
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
ASTELEHENA 26:
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
MARTITZENA 27:
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
EGUAZTENA 28:
ESTELA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
EGUENA 29:
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

OGIA

DOMEKA 25. Ogizun

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK
Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa. 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa. 943 76 62 46
Ertzaintza. 943 76 53 40
Osasun Etxea. 943 76 24 40
Asepeyo. 943 76 16 43
Pakea. 943 76 13 49
Angiozarko medikua. 943 78 90 27
Antzuolako medikua. 943 76 62 23
Odol emaleak. 943 76 16 24
Alkoholiko anonimoak. 943 76 51 06
GARRAIOAK
Taxiak. 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea. 943 77 91 00
Antzuolako udaletxea. 943 76 62 46
Udal Artxiboa. 943 77 91 32
Igerilekuak. 943 76 20 51
Kultur Etxea. 943 77 91 58
Liburutegia. 943 77 91 62
Kiroldegia. 943 76 56 41
Mizpirualde Egoitza. 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia. 943 76 14 92
Erregistroa. 943 76 13 15
Jardun. 943 76 36 61
Idolaz. 943 76 65 08
Jubilatuena Etxea. Bergara. 943 76 21 40
Antzuolako jubilatuena elk. 943 76 62 71
Postetxea. 943 76 26 85
Bedelkar. 943 76 04 68
Akulu AEK. 943 76 05 18
Udal euskaltgia. 943 76 44 53
Bergarako notaritza. 943 76 10 73

zorionak!



Idoia Imaz
29an 5 urte.
Urte askotarako!
Ion, Ane, Maddi
eta etxeokak.



Ariana Sasieta
23an 3 urte.
Urte askotarako!
Elene eta gurasoak.



Jose Angel Moraza
24an 32 urte. Urte askotarako!
Jarraitzaile sutsu bat.



Julen Irizar
26an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Martin Larrañaga
25ean 2 urte.
Urte askotarako!
Txomin eta gurasoak.



Marina Urriolabeitia
25ean 9 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Unai Uribesalgo
28an 21 urte.
Urte askotarako!
Lagunak, batez ere, Goreti.



Ion Bernal
26an 3 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Amaia San Torcuato
28an 8 urte. Urte askotarako!
Maider, ama eta aita.



Idoia Narbaez
26an 12 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Elixabeth Laskurain
29an 13 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.

oharrak

■ **1975ean jaiotako bazkaria** martxoaren 24an, Zabalan. Izena ematea (3.500 pta.) Kutxan. Martxoaren 24an Pol-Polen elkartuko dira 12:00etan.

■ **1954an jaiotako afaria** martxoaren 24an Azpeitxi jate-txean. Izena ematea (2.000 pezetako depositoa) Azpeitxin eta Etxenagusia tabernan.

■ **1964an jaiotako afaria** martxoaren 31n Tartufon. Izena ematea plazako kioskoan edo 607 41 04 09 zenbakian.

■ **Odol ateraldia** datorren eguaztenean, hilak 28, Seminarioan, 18:30ean. Odol emaile berriak behar dira.

jardunen agenda



■ **Gaztetxoendako Olinpiadak:** domekan, 16:00etatik aurrera, 11 urtetik gorakoendako mahai jolasak eta errelebuak herriko plazan.

■ **Bergara ezagutzen lehiaketa:** gaur, martxoak 23, 2. finalerdia: Txapuzeruak-Perretxikoak Jardunian. Lehen finalerdian: Hik Galdeu 238 puntu eta Petu-Petuan 273.

■ **Txorimalo lehiaketa:** nahi duen edonork parte har dezake. Izena emateko epea: apirilaren 2a.

■ **Herri bazkaria:** jaietako herri bazkaria antolatzen hasi behar gara eta nahi duzuen talde nahiz kuadrillak gonbidatuta zaudete antolaketa parte hartzera.

*Hurrengo alean,
martxoaren 30etik apirilaren 5era
bitartekoan zorion agurrak
argitaratuko ditugu.*

SUBIJAI

Gazteentzako moda



**Udaberri-
udako
moda gertu!**

**Kenzo Jungle
Oilily
Petit Boy
Pampolina
Quiksilver
Timberland
Elle Creation
Liberto**

943 76 42 41. Irala 1

Ivan Forero kolonbiarra herrian izan genuen jogan den astean. «Globalizatu zaitetz Kolonbia Planarekin» hitzaldia eskaini zuen. Koordinatzen duen «Nunca más» proiektuaz, Kolonbia planaz eta beste hainbat gauzaz hitz egin genuen berarekin.

G. Zer da “Nunca más Colombia”?

E. Azken 40 urteetan Kolonbian gertatu diren krimenen memoria historikoa errekuiperatzea da proiektuaren xede nagusia. 1965etik, Kolonbiako Estatuak, segurtasun nazionalaren dotrina hartu zuen estatuko politika gisa. Horrela, matxinadei aurka egiteko bidea jarri zuen, legearen eremua, indar militarren funtzionamenduan, justizia aparatuan... Estatu Batuek Latinoamerikarako aurrez definituta zuen plan globala, finean. Guztiaren ondorioz, Estatuak egindako krimenen memoria berreskuratu nahi dugu. 46.000 hildakoren kasuak berreskuratzearaz hitz egiten ari gara. Kontuan izanda, gainera, proiektua hiru krimen motaz arduratzen dela, batez ere: tortura, desagertzeak, eta legez kanpoko hilketak.

G. Zergatik oinarritzen zarete hiru horietan?

E. Besteren artean jurisdikzio unibertsalekoak direlako, eta krimen mota horrek ez duelako preskribitzen. Eta etorkizunean, Pinochetekin gertatu bezala, bide judizialak irekitzeko helburua dugu. Kolonbian ezingo dugu, baina bai beste toki batzuetan, Espainiako Estatuan, esaterako.


G. Europan nola ikusi dute proiektua?

E. Bost urte daramatza-gu proiektu honetan lanean. Iazko azaroan Europako

IVAN FORERO

“Nunca más-Colombia” proiektuko kidea

«Kolonbiako 46.000 hilketen memoria berreskuratu nahi dugu»



Ivan Forero Madrilén bizi da gaur egun, Kolonbiako gorberrutik ihesi.

Parlamentuan txosten bat aurkeztu genuen proiektuaren inguruan. Kolonbiako bake prozesuan parte hartzeko borondate politikoa ikusi genuen Europako Parlamentuan.

Gainera, Kolonbia Planarekin ez kolaboratzeko jarrera ere azaldu zuten.

G. Zer da Kolonbia Plana?

«Europako Parlamentuan bozketa egon zen Kolonbia Plana dela eta. Aurka 450 boto izan ziren, alde, soilik, PP azaldu zen»

E. EEBBek eta Kolonbiako oligarkiak egindako plana da. Gerra totala ekarriko duen plana da, eta noski, giza eskubideen urratzea.

G. Zer dio horren inguruan Espainiako Estatuak?

E. Kolaboratzen ari da, guztiz. Europako Parlamentuan bozketa bat egon zen. Planaren aurka 450 boto jaso ziren, alde, PP azaldu zen.

Hori oso larria da, batez ere, enpresa multinazional handiak bigarren inbertso-reak direlako Kolonbian. Hau da, BBV eta Banco Santanderrek Kolonbiako bankaren %60 kontrolatzen dute. Horregatik, euren dirua jokoan dutenez, Kolonbiako auziak euren eragin ahalik eta txikiena izatea nahi dute. Horregatik, Espainiako Estatuak ez da neutrala.

G. Zein dira EEBBen benetako interesak?

E. Oligarkia da Kolonbian nagusi. Arazoak konpontzeko erabili izan duen modua beti bera izan da: aurkaria deusezte. Inoiz ez du eman aukerarik bestelako mugimendu politikorik sortzeko. Ondorioz arazo sozialak konpontzen ez diren heinean, gero eta zilegitasun handiagoa lortu dute gerrillek. Horri gehitu behar diogu, Gobernuak, FMik esandakoaren arabera egin duela bere proiektu politiko eta ekonomikoa. Ondorioz, langabezi eta pobrezia handiagoa da. Gero eta jende gehiagok egiten du gerrillen aldera. Eta narkotrafikoa ere hor dago.

Horrek, EEBBengan eragina du, Ameriketako merkataritza librea ezartzeko plan estrategikoan hain zuzen. Kolonbia oztopo bat da. Azkenean, narkotrafikoa zantpatzeko aitzakiarekin euren interesak aurrera ateratzeko.

Neska-mutikoendako jolastokia eraiki berri du udalak Amillaga auzoan

Joan den asteko eguaztenean onartu zuen osoko bilkurak jolastokia egitea Amillagan, eta dagoeneko egin dute. Berdegunea, eserlekuak eta umeek jolasteko ziburua jarri dituzte bertan.

Amillagako etxeen ostean egin dute jolastokia, etxe horien eta familia bakarrarentzako txaleten artean. Txalet berrien eraikuntzaren ondorio da, hain zuzen, jolastoki berria egitea. Izan ere, etxebizitza berrien inguruan berdegune edota aisialdi guneak egitea derri gorrezkoa da. Horregatik, aipatutako eremuan umeendako jolastokia egitea erabaki zuen udalak.

Gunaren eraikuntza joan den asteko eguaztenean



Jolasgunea Mugertzako etxeen ostean eta txalet berrien artean egin dute.

onartu zuen osoko bilkurak. EAJ-EA, EH eta PSE-EEren aldeko botoa jaso zuen, nahiz eta EH taldeko zinegotzietan, tokia ez zaien guztiz aproposa iruditzen.

Jolasgunea egurrezko hesi batez inguratuta dago.

Hesiaren barrualdean zoria egokitu eta hainbat ziburu jarri dituzte; baita bi banku ere. Horrez gain, jolasgunea heldzeko dagoen bidean, mugariak jarri dituzte kotxeak sarrera horretan apartatu ahal ez izateko. Lan

horien guztien aurrekontua milioi erdi pezetakoa izan da.

MUGERTZAN APARKALEKUA

Bestalde, jolasguneetik ez oso urruti, Mugertzako gainean hain zuzen ere, aparkalekuak egokituko ditu udalak; Mugertzako gainaren alboan, errekaren kontra dagoen zabalgunean zehazkiago. Gaur egun ere, aparkaleku gisa erabili ohi dute aipatutako zabalgunea. Udalaren asmoa gunea txukundu eta aparkalekuak markatzea da. Oraindik ere azterketa egin gabe dago, eta ondorioz aparkaleku kopurua zehaztu gabe. Bestalde, lanok noiz egingo dituzten ere ez dute oraindik argitu. Dena den, urte honen barruan izango dira.

Tortura psikologikoak salatu ditu Arregik

«Torturapean, behartuta, esan dituen gezurrak, eta horrek kanpokoengan izan dezakeen eragina» da Xabier Arregi «Txapi»-ren kezka nagusia, bere anaiaren hitzetan.

Arregi hilaren 11n atxilotu zuen Polizia Nazionalak Garzonen aginduz. Hiru

egun inkomunikatuta izan ostean, inkomunikatuta deklaratu zuen, hilaren 14an, ofiziozko abokatuarekin. Orain Alcalá Mecoko espetxean dago.

Garzonek Haikako kide izatea leporatu zion Arregiri hasiera batean. Anaiaren esanetan, «orriren batean

ageri zen, antza, Haikako kide batzuk, atxilotutako ETako kide batzuekin harremana zutela, eta Xabierren izena bertan zekarren».

Hala ere, haren etxea miatu eta Arregik deklaratu ostean, «ez dute ezer aurkitu, eta Garzonek aldatu egin du akusazioa, beste gauza

baten enmarronatu dute». Horrela, torturapean, psikologikoa batez ere, «ez dena ere esatera behartu dute». Orain Ekineko Bergara eta Debagoieneko kide izateaz akusatuta dago. Ekineko kideen erruduntza zein den esatekoa zen Garzon astelehenean. Atzeratu egin da.

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ATARI

Zure auzo elkarteko arazoak konpontzeko gertu

Finka administrazioa. Kolegiatu zkia. 574
Ibargarai 1. Tel. 679 378 192. Faxe 943 76 38 41

EAJren aberri bakarria poltsikoa dela dio EHk

Ildo beretik, jeltzaleen helburua «besaulkiari eustea» dela gaineratu zuen martitzenean EH taldeak prentsaurrean. Adierazpen horiek hilaren 14an egindako osoko bilkuraren ondorio dira. Bilkura hartan, 2001. urteko aurrekontua onartu zuten, eta nahiko bilkura bizia izan zen.

Aurrekontua aurrera ateratzeko, gobernuko taldeak 9 boto behar zituen: euren 8ak gehi beste bat. EAJ-EA eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu zuten. EHk ezezkoa eman zuen. Hala ere, bilkuraren aurretik EH abstenitzekoa zen. Botoa aldatzeko arrazoia da, Udalbiltzaren partida, plenoan bertan kendu izana. Izan ere, «EAJ-EAk beharrezko zuen botoa lortzeko, PSE-EEK baiezkoa eman behar zuen, baina Udalbiltzako partida kentzeko baldintza jarri zuen. Eta onartu egin zioten». Asteleheneko plenoan Udalbiltzarako partida



Ehk udalean duen bulegoan eskaini zuen prentsaurrekoa martitzenean.

onartuko zela esan zuen alkateak, baina ez zen gai zerrendan sartu.

BALDINTZAK

Bilkura baino lau egun lehenago, EAJ EHrekin bildu zen aurrekontuaz jarduteko. EHk aurrekontuak eztabaidatzeko hainbat baldintza jarri zizkion EAJri: besteen artean, 99ko udal hitzarmena abian jartzea, abertzaleon elkarlana bultzatzea eta herriaren premiak asetzeko

diru kopuru sendoak prestatzea, hala nola, gazte lokaleko lanak egiteko 6 milioi edo Goienarako 23.

EHren esanetan, EAJk ez zituen euren baldintzak onartu, «biolentzia salatzen ez dugulako. Bai, aldez, PSE-EErenak». Ildo beretik, zera gaineratu zuten: «Gobernutik bota gintuzten biolentzia ez gaitzesteagatik, baina gure botoa behar dutenean, biolentzia gaitzesteak ez du garrantzirik».

Udalaren akordio bat bertan behera utzi du EAEko Auzitegiak

Estatuko abokatuak errekurritu egin du, preso eta deportatuen familien garraioak diruz laguntzeko, udalak, azaroaren 11n hartutako erabakia. Horrela, Estatuko abokatuaren eskariz, EAEko Justizi Auzitegi Nagusiak udalaren erabakia bertan behera utzi du behin-behinekoz.

Estatuko abokatuaren arabera, ez dagokio udalari horrelako dirulaguntzak onartzea. Auzitegiak ohar bat ere bidali dio udalari: 10 eguneko epea du abokatuarekin auzitegian aurkeztu eta dirulaguntza zergatik onartu zuen azaltzeko.

Udalbatza bildu egin zen astelehenean abokatua izendatzeko. Asier Aranbarri izendatu dute. EH eta PSE-EE abstenitu egin ziren. EHren ustez, udalak nahiko autonomia du horrelako erabakia hartzeko eta intsumisiora jo beharko luke.

JAUNARTZEAK, EZKONTZAK, BATAIOAK, KINTOENTZAKO BAZKARIAK...
Ilgandean zabalik enkargatuz gero

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegarieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

FRONTOI

TABERNA

Fraiskozuri z/g. 943 76 05 09

izeder

ARTE DEKORATIBOKO ikastaroak

943 76 71 05. Arruriaga 2

HIRU BIDE
JATETXEA-BENTA

Urteaga 9
Tf. 943 76 18 45

Matxiategi
Elektragintza
S.L.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. 943 76 19 94.

PISZINETAKO
TABERNA

Bokadiloak
Pintxoak
Kazuelitak

Boni Laskurain z/g
Tf. 943 76 53 55

Segurtasunagatik, Martokon geltokia tokiz aldatuko dute

Martoko auzoko bizilagunen kexuari erantzunez, udalak hango autobus geltokia tokiz aldatu eta seinalizatu egingo du. Kexuaren arrazoia da, geltokia orain dagoen tokian egonda, auzoko umeez eskola garraioa erabiltzeko errepidea gurutatu behar dutela, eta oso toki arriskutsua dela.

Martoko kaleko gainean dago geltokia, sestra aldaketaren eta bihurgunearen alboan. Bestalde, ez dago espaloirik ez oinezkoen pasabiderik, ezta geltokiaz ohar-tzen duen seinalerik ere.

Kexuaren ondorioz, geltokia tokiz mugituko du udalak. Martoko 1era erámango du, lehengoarekin



Etxe berri hauen parera, Martoko 1, ekarriko dute geltokia.

alderatuz, 50 metro San Antoniorantz. Oinezkoek espaloia dute hara iristeko, errepidearen beste aldetik bada ere. Bidea gurutzatzeko pasabidea dago, eta

ikusmena ona da, oinezkoendako eta gidariendako.

Autobus urbanoa ere geltoki horretan gelditzen da; gero, urbanoa ere geltoki berrian geratuko da.

Kale bilkurak San Martin plazan

Astelehen eguerdian hainbat lagun bildu ziren San Martin plazan, ETak Roses herrian atentatuan hil zuen Santos Santamaria mosso d'esquadraren heriotza gaitzesteko.

Bestalde, eguazten eguerdian berriz ere bilkura egin zuten udaleko hainbat agintari eta herritarrek. Martitzen eguerdian Lasarten gertatutako atentatua gaitzestea zuen helburu bilkura horrek. ETak Froilan Elespe, Lasarte-Oriako alkateordea, hil zuen tiroz taberna batean zegoela. Elespe PSE-EEko zinegotzia zen, 1987an Lasarte-Oriako Udala sortu zenetik.









Kruz Gallastegi 3 ☎ 943 76 07 37

BERGARA





Banataile ofiziala

Hirigintzan egingo dituzte aurtengo aurrekontuetako inbertsiorik handienak

Guztira 725 milioi pezeta bideratuko ditu udalak inbertsioetarako


Martxoaren 14ko ez ohiko osoko bilkuran onartu zituen udalbatzak 2001. urterako aurrekontuak. Bilkura gorabeheratsua izan zen, eta EAJ-EA eta PSE-EEren aldeko botuekin onartu zituzten. EH abstenitzekoa zen arren, aurkako botoa eman

zuen azkenean. Izan ere, aurrekontuetatik Udalbiltzari 2,5 milioi emateko asmoa bazuten ere, azkenean atzera bota zuten partida hori, PSEko ordezkariak eskatu-ta. Gauzak horrela, ezezko botoa ematea erabaki zuen EH alderdiak.

Aurtengo udal aurrekon-

tua 2.754 milioi pezetakoa da; horietatik 725 inbertsioetara bideratuko dituzte. Iazkoarekin alderatuz, 70 milioi gutxiago inbertituko ditu udalak. Inbertsio gehienak hirigintzara zuzenduta daude. Aipagarrienak, Labegarrietako industria-idea urbanizatzeko (100

milioi), eta lursailak erosteko (98 milioi) inbertituko dutena. Baina baserri bideak konpontzen eta auzoak hornitzen ere diru dezente inbertituko dute, 54 milioi hain zuzen. Guk inbertsio aipagarrienetako batzuk jaso eta azaldu nahi izan ditugu hemen.



■ **ARRIZURI EROSTEA:** 64 MILIOI

Gaur egun Ertzaintzaren polizia-etxea den Arrizuri jauregia erosiko du udalak. Izan ere, Aste Santu inguruan utziko dute ertzainek. Arrizuriaga parkea ere udalaren esku geratuko da. Oraindik erabakitzeke duten arren, liburutegia kokatuko ei dute jauregi horretan.



■ **OXIRONDO PLAZA:** 50 MILIOI

Alkabieta urbanizatzeko proiektua eginda dago. Zorua egokitu eta bankuak jarriko dituzte, parke itxura emanaz. Zapatuetako azoka ere bertara eramango dute. Santa Marinaren ingurune guztia hartzen duen proiektua idazten ari dira, eliza ingurunean integratuko duena.




■ **PARKEAK EGOKITZEA:** 16 MILIOI

Artzamendiko etxeen gainaldeko lurak udalaren esku geratu direnez, parkea egokitzeko asmoa dute. Bestalde, Santa Anako parkea ere txukunduko dute. Ermitak konpontzeko 15 milioiko diru partida dago, besteak beste, Santa Anakoa konpontzeko.



■ **HILERRIKO ERMITA:** 55 MILIOI

Hilerriko ermita konponduko dute. Oso ermita berezia da. Lehen, otoiizerako tokia zen, baina orain hilerriko langileek erabiltzen dute, besteak beste, lanabesak gordetzeko. Ermita konpondu eta otoiizerako txoko bilakatu nahi dute; errauskailua ere hantxe egingo dute.



■ **AUZOAK HORNITZEA:** 34 MILIOI

Basalgon, baserriarako bide bat argitu, eta bi baserrira herriko ura eramango dute. Osintxun, berriz, eliza aurrean dagoen tailerra bota eta parkea egingo dute. Bestalde, Osintxun bertan, lehen urarendako zen kanala garbitu, eta oinezkoendako bidea egokituko dute.



■ **BASERRI BIDEAK:** 20 MILIOI

Hainbat bide asfaltatuko dute: Itsasmentitik gorako bidea, zatirik al-dapatsuen eta labankorrena. Osintxun, berriz, Azkortarako bidea. Bestalde, badaude inor bizi ez den baserriak, baina ganadua dutenak. Horietarako ere, bideak egitea aztertzen ari da udala.



■ **ARGITERIA PUBLIKOA:** 20 MILIOI

Batetik, trenbide zaharra argizatuko dute, Torrekua pareko oinezkoendako tunela bukatzen denetik Ozaetaraino. Iturrikotik Azkarruntzerainoko bidea ere argizatuko dute. Bestalde, Ibargarai kale osoan jarriko dituzte argiak, etxe berrien inguruetan jarritakoen berdinak.



■ **UR SAREA:** 25 MILIOI

Antzuolara Urkulutik ura eramateko egingo dituzten lanak eta azpiegitura aprobetxatuz, Bolura ere ura eramango dute, eta Bolu gainaldean ur depositoa jarri. Bestalde, aurrera begira ur sarean sor litezkeen matxurak konpontzeko diru partida ere prestatu dute.



■ **INDUSTRIALDEKO URBANIZAZIO LANAK:** 100 MILIOI

Labegarrietako industrialdearen zati handia eginda eta urbanizatuta dagoen arren, badago oraindik zereginik. Falta den zatia egin eta urbanizatuzko 100 milioi aurrez ikusi dituzte: ur sarea, hodiak, espaloiak, bidea asfaltatzea... Berdegune bat ere egingo dute.



■ **LURSAILAK ETA ETXEBIZITZAK EROSTEA:** 98 MILIOI

San Antonioko etxe zaharrak erosiko dituzte, babes ofizialekoak egiteko. Orain etxe multzo bat egiten dihardute, eta beste bi ere egingo dituzte. Horrez gain, Infernukuako bihurgunea zabaltzeko etxe batzuk bota beharra dagoela eta, Zubietan hainbat etxe erosiko dituzte.

Berrigara

445 zenbakia.
2001eko martxoaren 23a.

Irizar jauregia, Barrenkalea 33,
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Mireia Larrañaga.
Harpidetza: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate,
Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkorobezibar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega,
Usoa Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Juan Martin Elempuru, Arantazu Oregi,
Gorka Ortega.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga, Oñati).

Azala: Berrigara.

Tirada: 5.400 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrigara
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurritzakako
Kultura saila

atrebentzia ezpada

Udalak 2001ean egingo dittuan inbertsiño nagusixak zein dien badakigu. Zuk, baiña, zertan inbertiduko ziñuke?



Juanjo Arizmendi

Kirolgunian inbertiduko neuke. Igerilekuak, esaterako, oso egoera kaskarran dare, igerileku be ezin jakue deittu.



Maria Eugenia Inza

Nik auzuetan gastauko neuke dirua. Errepidiak konpontzen edo auzuak erak hobetzen.



German Azkarate

Herrixa gehixago konponduko neuke. Eta baita kirolgunia be. Ez dago herrixan kirola egitteko instalaziño aproposik.



Iñaki Larrañaga

Aparkalekuak egitteko inbertiduko neuke. Bestela, momentu honetan ez jat beste ezer okurritzen.



Jose Mari Laskurain


Herrixa txukuntzen inbertiduko neuke. Baita hainbat bidegurutzte hobeto jartzen be: San Antonio aldia, eta bariantia...



Jone Molina

Aparkaleku gehixago. Lur azpiko aparkalekua egin dabe, baiña ez da nahikua. Umiendako jolastokiak be egingo nittuzke.

tira biraka gorka ortega & jon alvarez



adituen esanetan

Adin txikikoendako legedia berria

Aurtengo urtarri-laren 13tik dago indarrian. Kode Penaleko delitu edo faltak egiten dituzten 14 eta 18 urte bitartekoendako aplikatzen da. Edade horretako terrorismo delitugilliek beste bide bat hartzen dabe, oin azalduko ez doguna (eskubide gutxiago, neurri zorrotzauak eta Madrilen zentralizata instrukziñua eta epaia).

Epaillie espezifikua dago: adingabekoan epaillia (oingoz bat probintziako, kapitalean kokatuta). Prozeduran parte hartzen daben profesional danak espezializatuak die adin txikikuetan.

Epailliak zigorrak ezarri biharrian, neurrixak hartzen ditte: 14 neurri aurrekusten ditte legiak: barneratze itxia, erdi itxia eta irekixa, barneratze terapeutikuak droga-menpekuendako edota buruko gaixuendako, traetera anbulatorioa (medikura jua biharra zenbait egunetan), eguneko zentro batean lan, kirol, heziketa sostengua jasotzen, asteburuko egonaldixak etxian edo zentruan gehixenez 36 orduz, zaintzapeko askatasuna profesional baten pean, bizikidetzeta pertsona, familixa edo hezkuntza talderen batekin, erkidegoaren mesederako prestaziñuak (gaztearen onespenu bihar dabe eta ez da dirurik jasotzen) e.a. Inportantia da jakitia atxilotuaren bi eskubide: bata, abogaua izendatzeko espedientia inkoatzen denetik, eta bes-



AINHOA ALTUNA

Abokatua

«Legia penala da, baiña jardunketa ez: ejekuziñua Eusko Jaurilaritzak dauka, eta hezkuntza da bere oiñarrixa»

tea abogauakin elkarriketzeko eskubidia deklarau aurretik (baita poliziaren aurrin be). Akusaziñua Ministeritza Fiskalak bakarrik eramaten dau (ez dago ez pribaturik ez partikularrik, baiña kalteuak edo biktimak alegaziñua aurkeztu leike). Prozedimentuan instrukziñua be fiskalak darama (nahaste arrisksua delitugillian eskubidiak bermatzeko). Legiak delitugille eta biktimen arteko adiskidetze aukera ematen dau. Erresponsabilidade zibillian, aldaketa nabarmenena eta gura-

suendako larrixa: gaztiakin solidarioki erantzuten dabe kalteordainaz. Legia penala da, baiña jardunketa ez: ejekuziñua Eusko Jaurilaritzak dauka eta hezkuntza da oiñarri (teorixan behintzat).



Adin txikikoendako Zumarragako zentroa.

kaleen izenak



1970. hamarkadako argazkia.

Simon Arrieta plaza (I)

Simon Arrieta plaza, Irizar pasealekua hartuta eskuinetara dagoen plaza da.

Plazaren erdian Simon Arrieta pintore bergararraren eskultura bat dago. Bergarako Udalak, plaza urbanizatzea erabaki zuenean, Askasibar Elgetako eskulturagileari enkargatu zion bustoa. Azpian bere jaioteguna eta heriotz eguna jarri zituzten (1915-1969).

Simon Arrieta gure herrian oso eza-guna dela esango nuke. Ezagutu zutenek pintore eta gizon bezala asko estimatzen zuten gainera. Bere lanari buruz, honezkero asko idatzita dago, bai Ariz-Ondo aldizkarian Abdon Juaristik egindakoa, bai Bergarako Udalak eta Aurrezki Kutxa Munizipalak 1981ean argitaratu zuten liburuan irakur daitezkeenak. Hil ondoren ere, makina bat omenaldi eta erakusketa izan ditu. Lehenengo Gipuzkoako pintoreen elkarteak 1969an Zarautzen antolatutako "IV. Pintura Lehiaketa"-n egin zioten omenaldia. Bergaran, berriz, udalak 1971ko Pazkuetan erakusketa bat antolatu zuen eta 1976an Edergai arte aretoan Fernando Azkargortaren oleo lanekin batera erakusketa egin zuten. Aurrerago, 1980an, Donostiako Aurrezki Kutxako kultura aretoan ere erakusketa bat egin zuten. Hil zenetik 25 urtera, 1994an, Bergarako Udalak Migel Altuna institutuan hitzaldiak ere antolatu zituen. Nik, beraz, laburpen txiki bat besterik ez dut egin.

Testua: Arantzazu Oregi, Udal artxibozaina.

Argazkia: BUAK utzia (Roman Larrañaga fondoa).

50 milioi Bergarara

Tasio Otero ONCEko kupoi saltzailleetako batek **50 milioiko saria** eman zuen joan zen egu-bakoitzean. **30.443** zenbakidun txartela izan zen, hain justu, saritua. Irizar pasealekuko bere saltokian topatu dugu Tasio, oso pozik, gainera, normala den moduan. Zorionak irabazleei!



Itsasmendi bota dute

Barrenkaleko etxea orain dela pare bat aste hasi ziren botatzen. Duela urte batzuk arte **Itsasmendi taberna** zegoen eraikina, hain justu. Taberna itxi zutenetik urtetxo batzuk pasatu diren arren, han jarraitzen zuten oraindik denerako botilak. Orain, etxe berria eraikiko dute.



Athleticzaleak San Mamesen

Martxoaren 10ean **Athletic eta Villarrealen arteko partidua** ikustera joan ziren Bergarako zale batzuk. **Athletic peñak** antolatu zuen irteera hau, eta **50 bat lagun** joan ziren San Mamesera. Nahiz eta Athleticek berdintzea besterik ez zuen lortu, majo ibili ziren zaleak.

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...
Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

MP **Silvestre Muñoz, s.l.**
pinturak
Pintura-lanak
orokorrean
Pintura industrialia
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...
610 25 99 82 / 610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia. 20570 BERGARA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak / Txixizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak
Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

Garnish
Bitxitegia
San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

IBARGYREN PENTSVAK
BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak
San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

Biona
BANATZAILEA

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62

Bitorrek eta bere emaztiak orain dala hamalau urtetik dauke Irala bideo-kluba. Zamoran jaiotakua dan arren, bi urte zeuzkanetik bizi da Bergaran. Orain, 48 urte dauzka, esandako moduan, ezkontuta dago eta bi alaba dauzka.

Noiztik daukazue bideo-kluba?

Orain dala hamalau urte iriki giñuan, Irala kalia.

Bideo-klubian gehixen hartzen dan filma?

Azkenengo hillabetietan, hiru filmek, batez be, arrakasta haundixa eduki dabe: *Gladiator*, *Matrix* eta *Erin Brockovich*.

Ze filmek irabaziko dau Oscarra?

Idearik be ez. Aurkeztuko diran pelikula guztiak be ez dittut ezagutzen, gaiñera.

Gustuko gizonetzko aktore bat?

Tom Hanks.

Eta emakumezko bat?

Jodie Foster.

Bezero bat galdezka etorri ezkeru, ze film hartzia gomendatuko zontsake?

Hori bezeruan araberkua da, gustuen arabera bat edo bestia gomendatzen jet.

Txikittan zer izatia nahi ziñuan?

Imajinatzen dot futbolista izan nahiko nebala.

Asteburu baterako plan ideal bat?

Inori ezer esateke, andria eta bixok norabait juatia. Askotan egin izan dogu, gaiñera: Madrillera, Bartzelonara...

Janari bat?

Danetik gustatzen jat, batez be, okelia, txuletia, esaterako.

Usain bat?

Perfumeren batena, baitta janarixana be.

Kolore bat?

Gorrixa.

Bittor Bernardo

Zure bertute bat?

Pertsona ona naizela uste dot.

Eta defektu bat?

Jenixo txarra daukat, *prontua*.

Bestiengan zer da gehixen apreziatzen dozuna?

Zintzotasuna.

Denpora librian zer egittia gustatzen jatzu?

Oso etxezalia naiz; sofan botata orduak pasatuko nittuzke.

Nahikua diru eduki ezkeru zer egingo ziñuke?

Ez nuke bizimodua asko aldatuko.

Baiña denda berrixak jarriko nittuzke.

Aldatzekotan, zertan lan egin nahi ziñuke?

Ez nuke inola be lanez aldatuko, asko gustatzen jat eta.

Bergaran zer falta da?

Nere alabiak esaten dabenez gaztetxuak egoteko tokiak, parkiak...

Eskatu hiru desio.

Bizitza pertsonalian orain bezela jarraitzia, dirua edukitzia, eta osasuna. Topiko bat da, baiña...

Zeñi egingo zontsake elkarrizketa hau?

Andriari; sekulako lotsia pasatuko leuke.



BIZKOTIAK, ERREILENOAK ETA TOLOTIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 - 55

BERGARA

Gozogintzan aitzindari.

Sendabelarrak Dietetika

HURBIL Aukera biologikoa!

- Prebentzio neurriak osasunari begira.
- Elikagai biologikoak : barazkiak, frutak, esnea, lekariak...
- Kontsultak
- Sendagile naturista: zirkulazioa, erreuma, kolesterola...
- Pisuaren kontrol pertsonalizatua: koipe eta likidoen neurketarekin.
- Masajista

Irala z/g. 943 76 30 08

JOXAN

ARRAINDEGIA

Ibargarai 24
Tf. 943 76 70 29

Bikuña eta Toledo Dordokako kideak lehiaketan buru-belarri

Boccia, slalom eta pisu jaurtiketa probetan ari dira

Aritz Bikuña eta Agustin Toledo Dordoka taldeko kirolariek emaitza bikainak lortu dituzte azkenaldian. Zapatuan, Euskadiko boccia taldea ordezkatzuz, Toledok eta bere taldekideek Asturiaseko selekzioari irabazi zioten, Bidebietan. Bikuñak, aldiz, maila ona erakutsi du slalom eta boccia probetan.

Asturiasi 11-1 nagusitu ondoren, selekzio autonomikoaren arteko txapelketarekin jarraituz, hurrengo kanporaketa martxoaren 31n eta apirilaren 1ean jokatu du Madrilan Toledok. Boccia petankaren antzeko jokoa da eta Agustinek maila ona erakutsi du azken urteotan. 1994an, adibidez, Espainiako txapelkunordea izan zen, eta orain Dordoka taldeko boccia arduraduna da. Bere hitzetan, «indarra neurtzen jakitea eta doitasuna beharrezkoak dira boccian ondo jokatzeko». Bere ikasleetako bat Aritz Bikuña da. Bikuñak, Amagoia Arrieta eta Mario Rodriguezekin taldea osatuz, lehen mailarako igoera lortu zuen martxoaren 15ean Altzan.



Agustin Toledo (ezkerrean) Dordoka taldeko boccia arduraduna da. Aritz Bikuña boccian eta slalomean dabil.

Era berean, Bikuñak slalomeko hainbat probetan ere parte hartu du. Slalomean, gutxituek oztupoz beteriko ibilbidea gainditu behar izaten dute gurgildun aulkiarekin. Gasteizen eta Iruñean izandako probetan, marka onak egin zituen Aritzek eta datorren apirilaren 28an beste proba bat izango du, Espainiako txapelketarako sailkatu ahal izateko. Berak esan digunez, «ia ibil-

bide perfektua egin behar da, ahalik eta azkarren, marraz zapaldu eta piboteak lurrera bota barik». Maiatza aldera Oviedon izango den Espainiako txapelketara joateko aukera izan dezake.

ESPAINIAKO TXAPELKETA

Espainiako boccia txapelketa ekainean jokatu dute Reusen. Biek ere sailkatze-ko itzaropena dute. Agustinen esanetan, «Dordoka tal-

dearen barruan konpetentzia handia dago, eta zaila izango da Espainiako txapelketan izatea». Bocciaz gain, Agustinek atletismoan dihardu, pisu jaurtiketa proban. Bere helburua ekaina amaieran Leganesen izango den Espainiako txapelketarako gutxieneko marka lortzea da. Bere markarik onena, 3 metro eta 54 zentimetrokoa da (bolak 2 kiloko pisua dauka).

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29



BANKINTER

%4,95 etik aurrera lehen 3 urteetan

*Trekiera
komisioa:
%0,25.
35 urte
bitartean

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotilea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295

Contador madrildarra Gorlako igoeran garaile

Iberdrola taldeko Alberto Contador madrildarra irabazi zuen domekan jokaturako Gorlako txirrindulari igoera. Contador 18 urteko gazteak, gainera, errekor berria lortu zuen, 20 minutu eta 30 segundoko denborarekin. Bere atzetik, 10 segundora, Jonathan Gonzalez (Olarra) heldu zen, eta jarraian Jon Bru (Telco) eta Anton Luengo (Saunier), biak ere 13 segundora. Bergarako lehena Arkaitz Mendizabal (CDR) izan zen, 20. postuan. Beteranoetan, Ivan Santurde kantabriarrak bigarren aldiz irabazi zuen (23 minutu eta 35 segundo). Alatz Larrañaga bergarra izan zen bigarrena (24'22"), eta hirugarrena, berriz, Jose Manuel Fernandez (24'24").



Alberto Contadorrek errekor berria lortu zuen Gorlako igoeran. MIKEL FRAILE

baren ondorengo prentsarean. Datorren urtean txirrindulariek 88 kilometroko ibilbidea bete beharko dute. Bergaratik irten, Eskoriatatik pasatu, eta ondoren Gorla igoko dute lehenbiziko aldiz; jarraian Azkoitiatik Zumarragarako bidea hartu eta, Antzuolatik igaro ondoren, bigarren aldiz ekingo diote Gorla igotzeari, eta hantxe jarriko dute helmuga. Beteranoen probaren

antolaketa zalantzan dago. Mikel Larrañaga Lokatzako presidentearen hitzetan, "baliteke afizionatuek Gorlara egin beharreko bi igoeren artean jokatzea, baina aurtengo partaidetza eskasa ikusita, erabakiko dugu zer egin". Jaieguna izatekotan, datorren urteko Gorlako igoera martxoaren 19an jokatuko dute eta bestela, aurreko edo ondorengo domekan.

Igerilekuak zabalik

Konponketa lanak eta desinfekzio lanak egin ondoren, igerilekuak zabalduko dira zapatuan, hiak 24.

Markel Larrañaga hirugarren

Markel Larrañaga 14 urteko gazteak 3. postua lortu zuen domekan Gasteizen jokaturako Euskadiko karate txapelketan, infantiletan.

karteldegia

FUTBOLA

Bergara-EHU

Hirugarren maila
Zapatua. 16.30. Agorrosin

Bergara-Burumendi

Lehen mailako gazteak

Zapatua. 18.30. Ipintza

Bergara-Aretxabaleta

Infantilak

Domeka. 10.00. Ipintza

Bergara-Aloña Mendi

Neskak

Domeka. 11.30. Ipintza

SASKIBALOA

Bergara-Goierri

Kadete mutilak
Zapatua. 12.00. Kiroldegia

BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

LONBIDE ONETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



SANTOS



Elektragailuak eta argiztapena

Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10

Sukaldeko altzarien eta horma-armairuen fabrika



- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.
ARRASATE. 943 71 25 08

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



Labegaraietako futbito txapelketa

EMAITZAK

A MULTZOA

Fac-Torrekua	6-6
Pagomendi-Bar Ugarte	3-10
Bildurbarek-Irubide	5-4
Errotagain-Buya	8-3
Bar Canalejas-Apa Oxemai	8-3

B MULTZOA

Agirrebeña jatetxea-Amilotx	3-5
Ortiz-Etengabe	9-4
Pinturas Bergara-Bayer	5-11

C MULTZOA

Artusamak-Guadalest	5-4
A Ze Flaxa-Mongatxurak	8-9

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

16:30: Irubide-Bar Canalejas	Amilotx
17:30: Amilotx-Pinturas Bergara	Irubide
18:30: Bar Ugarte-Bildurbarek	P. Bergara
19:30: Aterpe-Agirrebeña	Bildurbarek

DOMEKAN, BARRUAN

9:30: Mongatxurak-Txipiron	Kanpazar
10:30: Cine Bank Irimo-Kanpazar	Al. Kresala
11:30: Aluminios Kresala-Bayer	Apa Oxemai
12:30: Errotagain-Apa Oxemai	Bayer
16:00: Etengabe-Vacalouras	Shaktale
17:00: Shaktale-Patxaran Team	Artusamak
18:00: A Ze Flaxa-Artusamak	Patxaran
19:30: Fac-Pagomendi	Eri
20:30: Eri-Amoskibar	Pagomendi

ARGI!

Partidu interesgarriak astebukaeran

Astebukaeran jokatu diren partiduen artean, Bar Ugartek eta Bildurbarek taldeak jokatu dutena nabarmentzekoa da. Era berean, A Ze Flaxa eta Artusamak taldeen artekoa ere ikusgarria izango da ziurrenik, bi taldeen sailkapenari erreparatzen badiogu, behintzat.

Zigorra beteta

Bar Ugarte taldeko Paco Martinezek eta Etengabe taldeko Patxi Francok jardunaldi horretan jokatu ahal izango dute, euren zigorra bete ondoren.

Artusamak, Bayer, Mongatxurak

Mongatxurak A Ze Flaxari nagusitu zitzaion (8-9), Artusamak taldeak 5-4 irabazi zion Guadalesti, eta Bayerrek Pinturas Bergara menderatu zuen (11-5).



GORA eta BEHERA



Pagomendi, Etengabe, Agirrebeña

Pagomendik Bar Ugarteren aurka galdu zuen (3-10), Etengabek Ortiziren kontra (4-9) eta Agirrebeña behaldean jarraitzen du Amilotxen aurka galdu ondoren.

SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	49	18
2. Errotagain	43	18
3. Bildurbarek	34	17
4. Bar Canalejas	34	18
5. Pagomendi	30	18
6. Amoskibar	27	17
7. Fac	24	17
8. Eri	16	17
9. Irubide jatetxea	15	18
10. Buya	14	18
11. Torrekua	10	18
12. Apa Oxemai	4	18

B multzoa

	P	J
1. Aterpe	41	15
2. Orzi	33	15
3. Aluminios Kresala	32	15
4. Kanpazar Harrobia	31	15
5. Amilotx	26	16
6. Bayer	23	16
7. Pinturas Bergara	20	15
8. Vacalouras	13	16
9. Cine Bank Irimo	8	16
10. Agirrebeña jatetxea	6	15
11. Etengabe	4	16
-	-	-

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa	36	16
2. Mongatxurak	33	13
3. Artusamak	28	12
4. Guadalest	27	15
5. Txipiron	19	14
6. Komando Piperrak	19	13
7. Shaktale	13	12
8. Patxaran Team	4	13
-	-	-
-	-	-
-	-	-

Informazio hau, ondorengo babesleei esker:

Irizar 2
☎ 943 76 14 95
JAUJA KIROLAK

OGIZUN
koop. elk.
okindegia
San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

Otsein Saria
Saikapen orokorra:
Ander Berraondo.....11 puntu
Arkaitz Arana.....11 puntu
Aritz Arabiourrutia.....10 puntu
Koldo Erostarbe.....9 puntu
Etzeko partiduak bakarrik hartzen ditugu kontuan.

mahoneroak



IGOR BAUZA
BKEko zuzendaritzakoa

Zapatuan, oso partidu kaskarra egin zuen Bergarak Gasteizko Aurrera taldearen aurka, eta merezimen du osoz galdu zuen. Lehen zatian husnako berdinketari eutsi zion Bergarak, baina bigarren zatian hasi bezain laster, gasteiztarrek lehenbiziko gola egin zuten. Eta handik gutxira, bigarren gola iritsi zen, gol bikaina benetan, urruneko jaurtiketa batekin. Bergarak, aldiz, ez zuen ia arriskurik sortu: lehenbiziko zatian gol aukera garbi samarra izan zuten, eta bigarren zatian Arkaitz Aranak izan zuen gola egiteko aukera garbia, baina huts egin zuen atezainaren aurrean.

Kontua da azken bost partiduak jarraian galdu dituela taldeak, eta kezkatzeko moduko egoeran dagoela. Sailkapeneko 15. postuan dago orain, eta jaitsiera postuak geroago eta hurbilago daude. Zapatuan, Agorrosinen, derrigorrezkoa da UPV-EHU taldeari irabaztea, hurrengo partiduetan Bergarak lasaitasun eta konfiantza handiagoz jokatzeko.

B e r g a r a k o OSASUN GIDA

- **ALBAITARIAK:** **ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko al baitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 ■ **ANALISI KLINIKOAK:** **LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06
- **BARNE MEDIKUNTZA:** **IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK:** **ARAMBURU HORTZ KLINIKA.** Telesforo Aranzadi 1, behe. 943 76 02 46 • **ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HORTZ KLINIKA.** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B.** 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **LASKURAIN HORTZ KLINIKA.** Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 • **TRIPALDI Enrike.** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA:** **LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK:** **ARZAK Miren (Reeducacion Postural Global).** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 • **BASTERRETXE, Maria.** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **HOMEOPATA:** **SUSANA GANUZA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **GINEKOLOGOA:** **SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK:** **AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 21 62 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA:** **BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62
- **MEDIKUNTZA OROKORRA:** **OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK:** **ALTUBE Edurne.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA:** **GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK:** **PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotritzitatea).** 943 76 14 80
- **URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa).** 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa).** 943 76 30 76 ■ **SEXOLOGOAK:** **ANA OIARZUN** Errebal 12, 2 esk., EIBAR. 943 70 24 46

Osasunez bizi izateko!



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

bonofotoa

Zein da Mekolalden dagoen baserri honen izena?

galde debalde

1. Zenbat udalek sinatu dute hitzarmena Goiena kooperatibarekin?


- A- Seik
- B- Bik
- C- Zortzik

2. Nor izan zen Bergarako lehena Gorlako igoeran afizionatu mailan?

- A- Alatz Larrañaga
- B- Arkaitz Mendizabal
- C- Ander Agirre

3. Zenbat eskola txiki daude Gipuzkoan eta zenbat Debagoiengan?

- A- 27 Gipuzkoan eta 2 bailaran
- B- 25 Gipuzkoan eta 4 bailaran
- C- 21 Gipuzkoan eta 7 bailaran



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria **Mari Karmen Sesma**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Mari Karmeni! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Arruriaga kalea**
Galde Debalde: **1-A, 2-A, 3-C**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____

Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Campo Viejo
errioxa gorria/beltza, 3/4ekoa

399 PTA!

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Gipuzkoako Eskola Txikien eguna Angiozarren ospatuko da aurten

Ekainaren 10ean izango da, eta bihar, zapatua, aurkeztuko dute

Eskola txikien jai handia. Horixe ospatuko da datorren ekainaren 10ean Angiozarren. Gipuzkoako eskola txikien jaiaren lekukoa hartu du aurten Angiozarko eskolak, eta buru-belarri dihardute eskolako gurasoek eta hainbat herritarrek jaia antolatzen. Bihar, zapatua, aukeztuko dute Angiozarko eskolan.



Debagoienean bi eskola txiki daude: Angiozarren (irudian) eta Elgetan.

Kilometroak, Nafarroa Oinez, Araba Euskaraz... aurkezpenik behar ez duten jaiak dira horiek. Badago, baina, maila txikiagoan bada ere, antzeko beste jai bat: Eskola Txikien eguna, hain zuzen ere. Gipuzkoako auzo eta herri txikietako hogeita zazpi eskolen jaia da hori. Aurtengoa jaiaren XIV. aldia da, eta Angiozarko eskolari dagokio antolatzea.

HERRI TXIKIAK BIZIRIK

Horixe da eskola txikien xede, eta horixe da, hain zuzen ere, Eskola Txikien jaiaren lelo eta mezua: 'Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik'. Eskolako guraso elkartearen esanetan, Angiozar biziko bada, biztanleak behar ditu. Biztanle gazte-

ak, biziak, auzoarekin identifikatuko direnak, herrian daukatena baloratuko dutenak, herriaren sena gordeko dutenak.

Horretarako, eskola ezinbestekoa dela aipatu dute. Izan ere, Angiozarkoa ez den beste eskola baten ikasiz gero, herrikoak berta-

koak ez diren errealitateak biziko ditu umeak.

HAINBAT EKITALDI

Jadanik, bihar, zapatua, aurkeztuko dute Angiozarren, 18:00etan. Aurkezpenarekin batera, egunean hainbat ekitaldi egingo dira auzoan: 17:00etan, eskolako argazki erakusketa irekiko dute elizpe zaharrean, eta eskolan atera izan diren argazkiak erakutsiko dituzte; lehengoak eta gaur egungoak.

Aurkezpenaren ondoren, 'Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik', jaiaren mezua, zeruratu egingo dute, eta ondoren, jai egunerako prestatu duten kantua ezagutzera emango dute. 19:00etan, txikiteoa egingo dute, eta 21:00etan, bertso afaria izango da Iñaki Murua eta Jon Maia bertsolariekin.

Orfeoia lehiaketa baten parte hartuko du Alacanten

Novelda herrian izango da lehiaketa, martxoaren 31n. Erljio musikako lehiaketa da, eta bost taldek parte hartuko dute. Hala ere, horien artean egoteko, aurrehautapena egin zuten an-

tolatzaileek. Hogeitik gora taldek eman zuten izena.

Horren haritik, David Azurza orfeoiko zuzendariak lehiaketa «serioa» dirudiela aipatu du, nahiz eta lehenengo aldiz antolatzen

duten. Bestalde, lehiaketa prestatzen «lan handia» egin dutela gaineratu du, eta Alacantera eramango duten helburua «ahalik eta ondoen egitea» dela.

Lau obra kantatu behar-

ko dituzte, 20 minutuko saioan. Baldintza bakarra da *a capela* abestea. Noveldako Santa Maria Magdalena pieza erlijiosoa derrigorrezkoa dute. Beste hirurak norberak aukeratutakoak dira.

ESPOLON



School of English

IKASTARO
Trinkoak

Cambridgeko azterketetarako prestaketa berezia:

First•Advanced•Proficiency

Apirilaren 23tik ekainaren 22ra

Informazioa:

Ibargarai, 31 (Barruko plaza)

Tel. eta faxa: 943 76 03 53

posta elektronikoa:

espolonschool@teletel.es



Angiozarko eskolan, 1965

Datorren ekainaren 10ean, eskola txikien jaia ospatuko da Angiozarren. Garai baten, ez ziren hain txikiak, ikasle kopurua kontuan hartzen badugu, behintzat. Gaurko eskola 1957. urtean inauguratu zen, eta aurtengo ikasturtean zortzi ikaslek dihardute. Alde ederra 1960ko hamarkadako datuekin! Maria Mercedes irakaslea falta bada ere, hauek dira erretratuan agertzen direnak:

Eskaileratan (goitik behera): Asun Berriotxo, Maria Angeles Altube, Maria Pilar


Garai, Mari Karmen Beitia, Ana Mari Gorrotxategi, Maria Pilar Arantzabal, Maria Luisa Berriotxo, Rosalia Garitano, Maria Luisa Luarizaristi eta Maria Pilar Gallastegi.

Zutik (ezkerretik eskumara): Maria Pilar Alberdi, Isabel Ruiz, Maria Jesus Ugarte, Ana Mari Azula, Amaia Manzidor, Josefina Sanchez, Amparo Larrañaga, Mila Agirrezabal, Kontxi Gallastegi, Mari Tere Otxoa, Maria Jesus Gorosabel, Ana Mari Gallastegi, Itziar Garmendia, Beatriz Eguren, Rosa Mari Pagaldai, Kontxi Loidi eta Alicia Azula.

Belauniko: Valentina, Gemma Garai, Consuelo Garitano, Ana Isabel Eguren, Maria Jesus Garmendia, Koro Loiti, Asun Otxoa, Begoña Ugarte, Itziar Gallastegi, Mari Tere Gallastegi eta Arantxa Pagaldai.

Lurrean jarrita: Mila Etxaniz, Rosa Mari Elizburu, Virtudes, ezezaguna, Isabel Elortza, Dolores Orobengoa, ezezaguna, Arantxa Ugarte, Ana Rosa Elortza eta Lore Eguren.

Argazkia: Maria Angeles Altube



**Manufacturas
LARRAÑAGA**

- Lan-babeserako artikulak
- Seinaleztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.
Tf. / faxa 943 76 59 53.

**Hitzaldia
Venezuela:
gaur egungo egoera**

Hizlaria: **Guillermo Olivares** venezuelarra

2001eko martxoaren 27an,
asteartea, 19:30ean
Bergarako kultura etxean

**KOMITE
INTERNAZIONALISTAK**



Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldeko erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



3.000.000 ibilgailu baino
gehiago aseguratuta
lasai-lasai errepidean



Problemarikgabe

Egin kontuak! 2.400 bulezo, 12.000 lagun zure zerbitzura, 4.000 konponketa zune



MAPFRE

Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.


Aurpegia berritu eta gaztetzeko tratamenduak

EDERTASUN
LIFTING-A

MARY
COHR
PARIS

ADINAREN
AURKAKO ZAINKETA
LIPOSOMEKIN

Zimurren murrizketa **-%40**
Azalaren hidratazioa **+%80**



Teknologia
berriena zure
zerbitzura.

Ametz

EDERTZE ARETOA

Masterreka 19, behea. 943 76 46 53.



Udaberri-udako kolekzio berria

BASTER

Baita ezkontza, jaunartze eta ekitaldi berezietarako jantziak ere